# BIZKARGI
# Musika eta Dantza Eskolaren
# FUNTZIONAMENDUAREN ARAUDI OROKORRA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.*
*Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.*

## A. MATRIKULAZIOA ETA IKASLEEN ONARPENA
### 1. Araudi Orokorra

a) Ikasle oro funtsezko irakaskuntzetan (instrumentala, ahozkoa eta dantza) eta irakasgai osagarrietan matrikulatu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoan musika irakaskuntza ez arautua ematen duten zentroen sorrera eta funtzionamendua arautzen duen urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan ezarritako irizpideen arabera.

b) **Matrikula formalizatzean, hautagaia Eskolako ikasle bihurtzen da, eta bere gain hartzen ditu ikasle izateari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak**. Beraz, Eskolan matrikulatzeak berekin dakar **Eskolaren Antolakuntza eta Jarduera Araudian ezarritako arauak nahitaez betetzea, bai eta Zuzendaritza Batzordeak onartutako betekizunak eta erabakiak** eta ondorengo lege eta erregelamenduetan ezarritako beste edozein ere.

c) **Matrikula formalizatu ondoren, Eskolak ziurtzat joko du interesdunek badakitela eta onartzen dutela indarrean dagoen Araudia loteslea dela**.

d) Eskolan matrikulatzeko ezinbestekoa da kuotak ordainduta izatea.

e) **Matrikula INIKA plataformaren bidez formalizatuko da**, eta matrikulatzeko epeak, plataforma horren bidez jakinarazteaz gain, webgunean eta Eskolako iragarki taulan argitaratuko dira.

## B. IKASLE MOTAK
### 1. Eskolako ikasleak

a) **Eskolako ikasleak** dira matrikulazio aldian Eskolako ikasle aktibo gisa alta emanda daudenak. Ikasleak Musika Hizkuntzako ikasketak egin nahi baditu edo musika tresna bat jotzen ikasteko behar adinako prestakuntza egiaztatzen badu, **lehentasuna izango du lehen espezialitate instrumentala aukeratzeko orduan, prestakuntza hori egiaztatzen ez dutenen aurretik, betiere dagokion epean matrikulatzen bada.**

b) **Aukeratutako instrumenturako plazarik ez badago**, beste instrumentu bat aukeratu ahalko da bigarren aukera gisa.

## A. MATRICULACIÓN Y ADMISIÓN DE ALUMNOS
### 1. Normativa General

a) Todo alumno/a podrá matricularse en las enseñanzas principales (instrumental, vocal y danza) y materias complementarias, de acuerdo con los criterios establecidos en el Decreto 289/1992, de 27 de octubre, por el que se regula la creación y funcionamiento de los centros que impartan enseñanzas musicales no regladas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Al formalizar la matrícula, el/la candidato/a pasa a ser alumno/a de la Escuela y asume todos los derechos y obligaciones inherentes a su condición de alumno/a. Por tanto, **la matriculación en la Escuela conlleva el obligado cumplimiento de las normas establecidas en el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela, así como de los requisitos y acuerdos aprobados por la Junta Directiva**, y cualesquiera otros que se establezcan en posteriores leyes y reglamentos.

c) **Una vez formalizada la matrícula, la Escuela dará por hecho que los interesados conocen y aceptan que la Normativa vigente es vinculante**.

d) Para matricularse en la Escuela es necesario tener pagadas las cuotas.

e) **La matrícula se formalizará a través de la plataforma INIKA** y los plazos de matriculación, además de ser comunicados a través de dicha plataforma, se publicarán en la web y en el tablón de anuncios de la Escuela.

## B. TIPOS DE ALUMNADO
### 1. Antiguos alumnos

a) **Son antiguos alumnos** de la Escuela los que están dados de alta como alumnos activos de la Escuela en el periodo de matriculación. Si el/la alumno/a desea cursar los estudios de Lenguaje Musical o acredita una formación suficiente para aprender a tocar un instrumento**, tendrá preferencia a la hora de elegir la primera especialidad instrumental, sobre quienes no acrediten dicha formación, siempre que se matricule en el plazo correspondiente.**

b) **Si no hay plaza para el instrumento elegido,** se podrá elegir otro instrumento como segunda opción.

c) **Plazarik ez badago**, ikaslea dagokion **itxaron zerrendan** sartuko da. Bajaren bat izanez gero, lehenik eta behin zerrenda horretara joko da, hutsik geratu den plaza hori betetzeko lehentasun irizpide hau kontuan hartuta: **MUSIKA HIZKUNTZAN matrikulatuta egotea.**

d) **Bigarren espezialitate baterako** (instrumentala eta/edo dantza) **plaza eskatuz gero**, eskatzailea ikasle berritzat hartuko da espezialitate horietan. Beraz, itxaron zerrendan espezialitate horiek lehenengo espezialitatea direnentzako ikasleak badaude, azken horiei emango zaie lehentasuna plaza esleitzeko orduan.

e) **Eskolako ikasleek Aste Santuaren aurreko 2 eskola asteen barruan** matrikulatu beharko dute. Matrikula epe horren barruan formalizatzen ez bada, ikasle horiek ikasle berrien aukera berberak izango dituzte, hau da, **taldeak eta ordutegiak aukeratu ahal izango dituzte matrikularen hurrenkera zenbakiaren arabera**.

f) **Ikasle taldeen ordutegiak ikasturte batetik bestera aldatzen dira**. Beraz, ikasleek edo gurasoek aukeratuko dute nahi duten taldea, betiere Eskolak eskainitako ordutegiaren barruan.

g) **Ikasle taldeen ordutegiak,** INIKA plataformaren bidez jakinarazteaz gain, Eskolako webgunean eta iragarki taulan argitaratuko dira, matrikulazio epea hasi baino astebete lehenago.

h) **Instrumentuen kasuan,** Eskolak berak ezartzen du, aldez aurretik, hurrengo ikasturtean instrumentu bakoitzaren klaseak asteko zein egunetan emango diren. **Ordutegia, ordea, behin-behinean adostuko da irakaslearekin ekainaren 30a baino lehen** (egun hori barne).

i) Onartutako ikasle guztiak Eskolak ezarritako epearen barruan matrikulatu behar dira. **Matrikula ezarritako epean egiten ez dutenek plaza galduko dute** eta Eskolak plaza hori dagokion itxaron zerrendako ikasle bati esleituko dio.

c) **Si no hay plazas**, el/la alumno/a se incorporará a la lista de espera correspondiente. Si como consecuencia de una Baja se genera una vacante, se recurrirá en primer lugar a dicha lista, teniendo en cuenta el siguiente criterio de preferencia para cubrir dicha plaza: **estar matriculado en LENGUAJE MUSICAL**

d) **En el caso de solicitar plaza para una segunda especialidad** (instrumental y/o danza), el/la solicitante será considerado/a como nuevo/a alumno/a en dichas especialidades. Si en la lista de espera hay alumnos para quienes esas especialidades fueran su primera especialidad, se dará prioridad a estos últimos a la hora de adjudicar la plaza.

e) **Los antiguos alumnos deberán matricularse dentro de las 2 semanas lectivas previas a Semana Santa**. Si la matrícula no se formaliza dentro de este plazo, estos alumnos tendrán las mismas opciones que los nuevos alumnos, es decir, **podrán elegir grupos y horarios según el número de orden de matrícula.**

f) **Los horarios de los grupos de alumnos varían de un curso a otro**. Por tanto, serán los propios alumnos o sus padres quienes elijan el grupo que desean, siempre dentro del horario ofertado por la Escuela**.**

g) **Los horarios de los grupos de alumnos**, además de notificarse a través de la plataforma INIKA, se publicarán en la web y en el tablón de anuncios de la Escuela, una semana antes del inicio del plazo de matriculación.

h) **En el caso de los instrumentos**, la propia Escuela establece previamente los días de la semana en que se impartirán las clases de cada instrumento en el curso siguiente. **El horario, sin embargo, se acordará provisionalmente con el profesor antes del 30 de junio** (inclusive).

i) Todos los alumnos admitidos deben matricularse dentro del plazo establecido por la Escuela. **Quienes no formalicen la matrícula en el plazo establecido perderán la plaza** y la Escuela asignará dicha plaza a un/a alumno/a de la lista de espera correspondiente.

## B. IKASLE MOTAK
### 2. Ikasle berriak

a) **Ikasle berritzat jotzen da matrikulazio aldian Eskolan ikasle aktibo gisa alta emanda ez dagoena** matrikulatu nahi den espezialitatean. **Ikasle horientzako matrikula epea Aste Santuko oporren ondorengo** lehen eskola-astelehenean irekiko da.

b) **Bai ikasle berrien kasuan bai beste espezialitate bat egin nahi duten Eskolako ikasleen kasuan**, **matrikularen hurrenkera zenbakiaren arabera** esleituko dira ordutegia eta espezialitatea.

c) **Bigarren aukera gisa hautatutako instrumentuen espezialitatean** matrikulatzen diren ikasleak lehen aukera gisa hautatutako espezialitateko itxaron zerrendan geratuko dira **irailaren lehen astera arte (barne)**. Bajak badaude, bigarren aukerako matrikula lehen aukerako matrikula bihurtu ahal izango dute. Nolanahi ere, itxaron zerrendako ordenari jarraituko zaio.

d) **Matrikulazio aldia amaitu ondoren, bajarik gertatuz gero**, plaza huts guztiak, ahal den guztietan, dagokion itxaron zerrendarekin beteko dira. Musika Hizkuntzaren kasuan, ikasturteko lehen hiruhilekoan bakarrik onartuko dira alta berriak.

e) **Matrikularen hurrenkera zenbakia izango da beti lehentasunezko irizpidea** kasu eta egoera guztietan.

## B. TIPOS DE ALUMNADO
### 2. Alumnos nuevos

a) **Se considera nuevo/a alumno/a aquel/aquella que durante el período de matriculación no esté dado/a de alta en la Escuela como alumno/a activo/a** en la especialidad en la que desea matricularse. **El plazo de matrícula para estos alumnos se abrirá el primer lunes lectivo después de vacaciones de Semana Santa.**

b) **Tanto para los alumnos nuevos como los antiguos alumnos de la Escuela que deseen cursar otra especialidad**, el horario y la especialidad se asignarán **por el número de orden de matrícula.**

c) **Los alumnos que se matriculen en la especialidad de instrumental escogida como segunda opción** quedarán en la lista de espera de la especialidad seleccionada como primera opción **hasta la primera semana de septiembre (incluida)**. En caso de bajas, podrán convertir la matrícula de segunda opción en matrícula de primera opción. En todo caso, se seguirá el orden de la lista de espera.

d) **Una vez finalizado el periodo de matriculación, en caso de baja**, todas las plazas vacantes se irán cubriendo mediante la lista de espera correspondiente, siempre que sea posible. En Lenguaje Musical, sólo se admitirán nuevas en el primer trimestre del curso.

e) **El número de orden de matrícula será siempre el criterio prioritario** en todos los casos y circunstancias.

## C. MURRIZKETAK
### 1. Matrikulak

a) **Behin izena emanda ez da matrikularen kuota itzultzeko eskubiderik izango.**

b) **Familia ugariko kideek %50eko murrizketa** izango dute matrikularen/matrikulen kuotan/kuotetan.

## C. BONIFICACIONES
### 1. Matrículas

a) **Una vez inscrito no se tendrá derecho a la devolución de la cuota de matrícula**.

b) **Los miembros de familias numerosas tendrán una reducción del 50%** en la cuota/cuotas de matrícula/matrículas.

## C. MURRIZKETAK
## 2. Hileko kuotak

a) Familia-unitate bereko 3 edo 4 kide ikasten ari badira, **murrizketa aplikatuko da Eskolan matrikulatzeko ordenaren arabera eta ez ikasturtean matrikulatzeko ordenaren arabera**.
- **3 kide badira, % 50eko murrizketa** aplikatuko zaio eskolan matrikulatu den hirugarren kidearen kuota osoari.
- **4 kide badira, %100eko murrizketa** aplikatuko zaio eskolan matrikulatu den laugarren kidearen kuota osoari.

## D. BAJAK
## 1. Bajak jakinarazteko prozedura

a) **Baja emateko, baja eskatzeko inprimakia bete behar da**. Inprimakia Idazkaritzan eskatuko da edo webgunetik deskargatuko da eta, bete ondoren, Idazkaritzan utziko da edo posta elektronikoz bidaliko da Eskolara.
b) **Baja eskaera ikasleak berak** (adinez nagusia bada) edo **gurasoek/legezko tutoreek** (adingabea bada) **aurkeztu beharko dute.**
c) Baja ematea eskatuz gero, **eskaera egin deneko epe hori amaitu arteko kuotak kobratuko dira**.

## D. BAJAK
## 2. Baja emateko epeak

a) Ikasturtea hasi ondoren baja eman nahi izanez gero, **nahitaezkoa izango da baldintza hauek betetzea:**
- **1.epea**: irailetik abendura bitartean jakinarazitako baja (biak barne) abendura arte ordainduko dira kuotak (biak barne).
- **2.epea**: urtarrila eta martxoa bitartean jakinarazitako baja (biak barne) martxora arteko kuotak ordainduko dira (biak barne)
- **3.epea**: apirilaren 1etik aurrera jakinarazitako baja, ekainera arteko kuotak ordainduko dira (barne).

## C. BONIFICACIONES
## 2. Cuotas mensuales

a) En el caso de que 3 o 4 miembros de una misma unidad familiar estén cursando estudios, **la bonificación se aplicará por orden de matriculación en la Escuela y no por orden de matriculación en el curso**.
- **Si son 3 miembros, se aplicará una bonificación del 50%** sobre la cuota del tercer miembro que se haya matriculado en el centro.
- **Si son 4 miembros, se aplicará una bonificación del 100%** sobre la cuota del cuarto miembro que se haya matriculado en el centro.

## D. BAJAS
## 1. Procedimiento de notificación de bajas

a) **Para darse de baja es necesario rellenar el impreso de solicitud de baja**. El impreso se solicitará en Secretaría o se descargará desde la web y, una vez cumplimentado, se dejará en Secretaría o se enviará por email a la Escuela.
b) **La solicitud de baja deberá ser presentada por el/la propio/a alumno/a** (si es mayor de edad) o **por los padres /tutores legales** (si es menor de edad).
c) En caso de solicitar la baja, **se cobrarán las cuotas hasta el final del plazo en el que se ha presentado la solicitud de baja**.

## D. BAJAS
## 2. Plazos para darse de baja

a) En caso de querer darse de baja una vez iniciado el curso, **será obligatorio cumplir los siguientes requisitos:**
- **1er plazo:** la baja comunicada entre septiembre y diciembre (ambos inclusive) se abonará hasta diciembre (ambos inclusive).
- **2º plazo**: la baja comunicada entre enero y marzo (ambos inclusive) se abonará hasta marzo (ambos inclusive)
- **3er plazo**: baja comunicada a partir del 1 de abril, se abonarán las cuotas hasta junio (inclusive).

## E. ERREKLAMAZIOAK

### 1. Erreklamazioa egiteko prozedura

a) **Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko da nahitaez.** Erreklamazio-inprimakia Idazkaritzan eskatuko da edo web gunetik deskargatuko da eta, bete ondoren, **Idazkaritzan utziko da edo posta elektroniko bidez helaraziko da Eskolara.**

b) **Zuzendaritza Batzordeak**, kasua ebatzi ondoren**, ebazpena interesdunari helaraziko dio** erreklamazioa aurkeztu eta gehienez **15 egun balioduneko epean.**

c) **Interesdunak 7 egun balioduneko epea izango du,** jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita, Zuzendaritza Batzordeak ebatzitakoaren aurka **idatziz errekurtsoa aurkezteko.**

## F. ESKOLAKO TRAMITEAK ETA KOMUNIKAZIO KANALA

### 1. INIKA

a) **Eskolako tramite administratiboak eta akademikoak INIKA plataformaren bidez egingo dira, eta, beraz, nahitaezkoa izango da bertara sartzea** Eskolak eskatzen dituen tramiteak egiteko, jakinarazpenak jasotzeko eta irakasleekin komunikatzeko.

## G. HIZKUNTZAK

### 1. Hizkuntzen trataera

a) Eskolak helaraziko duen idatzizko informazioa Eskolako erabiltzaileek eskatu bezala bidaliko da, euskaraz edo ele bietan.

## H. IDAZKARITZA

### 1. Idazkaritzako zerbitzua

a) **Idazkaritzara joan beharko da nahitaez honako tramite hauek egiteko**: baja ematea, erreklamazioa aurkeztea eta datu pertsonalak eguneratzea, bai eta edozein zalantza argitzeko edo edozein informazio eskatzeko ere.

## E. RECLAMACIONES

### 1. Procedimiento de reclamaciones

a) **La reclamación deberá presentarse obligatoriamente por escrito**. El formulario de reclamación se solicitará en la Secretaría o se descargará de la web y, una vez cumplimentado, **se dejará en la Secretaría o se enviará por email a la Escuela.**

b) **La Junta Directiva**, una vez resuelto el caso, **trasladará la resolución al/a la interesado/a en el plazo máximo de 15 días** hábiles desde la presentación de la reclamación.

c) **El/la interesado/a dispondrá de un plazo de 7 días hábiles,** contados a partir de la notificación, **para interponer recurso por escrito** contra lo resuelto por la Junta Directiva.

## F. TRÁMITES DE LA ESCUELA Y CANAL DE COMUNICACIÓN

### 1. INIKA

a) **Los trámites administrativos y académicos de la Escuela se realizarán a través de la plataforma INIKA, por lo que será obligatorio el acceso a la misma** para realizar los trámites que requiera la Escuela, recibir las notificaciones y comunicarse con el profesorado**.**

## G. LENGUAS OFICIALES

### 1. Tratamiento de las lenguas

a) La información escrita que transmita la Escuela se remitirá tal y como soliciten los usuarios de la Escuela, en euskera o en ambas lenguas.

## H. SECRETARÍA

### 1. Servicio de Secretaría

a) **Será necesario acudir a la Secretaría para realizar los trámites** de baja, reclamación y actualización de datos personales, así como para aclarar cualquier duda o solicitar cualquier información.